

Goiherriko Euskal Eskola eta euskararen irakaskuntza

Dionisio Amundarain

0. SARRERA

Goiherriko Euskal Eskolak bere zentrua edo zuzendaritza Lazkaon dauka. Halere, Goiherriko herri guztietako alfabetakuntzaz eta euskalduntzeaz arduratu izan eta arduratzen da.

Berez, jatorria bilatzeko historian aski atzera jo behar bada ere, Goiherriko Euskal Eskolaren erakundetzea 1977an egin zen; orduan hasi zen herri guztietako irakaskuntza koordinatzen Goiherriin.

Irakaskuntza, hasera batean, alfabetakuntzan zentratu zen erabat. Gerora, euskalduntzea nagusitu zen nabarmenki. Halere, alfabetakuntzak indar handia izan du gerora ere. Horren lekuko, han eta hemen, hainbat erakundetan lanean ari den goiherritar jende alfabetatua.

Normalean, ikastorduak iluntzetan eta bazkalondoetan eman ohi ziren. Baina, 1975ean udako ikastaro trinkoak ere ematen hasi ginen Lazkaon. Gerora, urtean zehar ere eman genituen zenbait ikastaro trinko hainbat erakundek eskatuta. 1982ko irailetik hasita, berriz, ohizko ordukako ikastaroez gain, hilero-hilero ikastaro trinkoak ematen ari gara.

Lazkaon 1974etik bagenuen lokal propio bat geure lanerako. Baina, ikastorduak emateko, herri guztietan, beste erakundeen lokalez baliatzen ginen:

Ikastola, Eskola Publikoak, Kultur Elkartek. 1982tik, eta aipatutako ikastaro trinkoak hilero-hilero emateko, zenbait lokal hartu beharra izan zen: jangela, logelak, ikasgelak, e.a.

Irakasleen bilakaera ere kontutan hartzekoa da. Garai batean, Euskal Eskolako irakaslea beste lanbidèren bat zeukan jendea zen: andereñoak, langilea... 1982tik Euskal Eskolako irakasle goa erabat edo ia erabat horretara dedikatzen dena da (uztailean hartu ohi den zenbait irakaslez aparte). Dena den, aipatu alderdi horretaz gain, oso gogoan hartzekoa da —egungo gizarte-bilakalerari buruz— gaur egun ez irakasle batek, ez langile batek ikastordu bat ere eman nahi izatea.

Ikasle goaren bilakaera ere hor dago. Azken urteotan, portzentaia oso handia irakaskuntzan ari den edo irakaskuntzara begira ikasten ari den jendeak osatzen du. Euskara ikasten inoiz ikusi ez diren profesioak —salbuespen bakan batzu aparte— honako hauek izan dira: abokatuak, sendagileak, kazetariak... Agian, zeintzu ibili diren esanez egiaziago ariko gara. 1980/1981 ingurura arte honako hauek: langileak, ikasleak, Lan Kide, A.K.P. eta A.K.M.eko jendea, Ikastolako irakasleak; hortik aparte ezer gutxi. Gaur egun, oso langile gutxi; halere, CAFeko langile batzuk egin izan dituzte Ikastaro Trinkoren batzu lan-erre-

gulazioa aprobeztatuz. Irakasle asko. Eta langabezian dagoen maisu-maistra kopuru handia.

1. GAUR EGUNGO ANTOLAKETA ETA ORDUTEGIA

Alde batetik, ordukako ikastaroak ditugu; bestetik, ikastaro trinkoak.

1.1. Ordukako ikastaroak

Gehienbat bazkalondoetan eta iluntzetan ematen dira Goiherriko edozein herritan. Ikasle-talde bat moldatuz gero, ordea, beste edozein ordutan ere ematen ditugu. Maila bereko ikasle-taldea moldatzea aski da. Hala, 1984-1985 ikasturtean herri hauetan eman ditugu horrelako ikastaroak: Beasain, Lazkao, Ordizia, Zaldibia eta Zerain.

Aurtengo ikasturterako ordu-modulo hauek ditugu aurrikusiak: asteen 8 ordutakoak, 15 ordutakoak, 25 ordutakoak (hauek, normalean, Lazkaon antolatzen dira), eta larunbat goizetan 4 ordutakoak (Alfabetatzen eta EGA mailakoak bakarrik).

Esan beharra dago, ordukako ikastaro hauetan, zailtasunik haundienetakoak honako biok izan ohi direla: batetik, maila bereko taldeak egitea, eta, bestetik, ikaslearen jarraipena eta iraupena. Lehenengo zailtasunari aurpegi emateko, zenbait ikaslek herriz aldatu beharra izaten du, hau da, herri batetik bestera jo behar izaten du; ikaslea, ordea, horretarako oso nagia izan ohi da. Bigarren zailtasuna gogoan izanik, 85-86 ikasturtea bi lauhilabetekotan banatu dugu: urritik urtarrilera eta otsailetik maiatzera; horrela, lehen lauhilabetekoa amaitzean, ikasle-taldeak birmoldatu egingo ditugu; guztia, azken hilabeteetan ikasle-talde guztiz urri eta koxkorrekin ez aritzeko.

1.2. Ikastaro trinkoak

Izen honen pean honako hauek datoz: egun osoa euskara ikasten ematen dituzten ikasleen ikastaroak. Gehienbat, bar-

netegian; baina, barnetegian izan gabe ere, egunean 5 edo 6 ikastordu egiten dituztenak ere bai.

HABE-rekin egindako hitzaremena dela medio, hilabetero barnetegian 80 lagun hartzen ditugu; uztailean laguntalde askoz haundiagoa. Horretaz aparte, beste erakunderen batekin egindako hitzarmena dela medio, jende gehiago ere hartu izan dugu barnetegian (84-85ean 26 ertzain, esaterako). Eta barnetegitik kanpo, baina ikastaro trinkoa eginez, beste hainbat jende: Goiherriko ikasleak, CAFeko langileak, e.a.

Barnetegiko ordutegia honako hauex da:

8,45ean	: Gosaria
9,30-11,30	: Bi ikastordu
11,30-12,00	: Atsedena
12,00-13,00	: Ikastordua
13,45	: Bazkaria
16,30-17,30	: Ikastordua
17,30-18,00	: Atsedena
18,00-19,00	: Ikastordua
20,00	: Afaria

Gainera, nahi duten ordutan egin ditzaten, bi ordu t'erdiko ariketa idatziak eman ohi zaizkie.

Bestalde, barnetegia era berezikoa da: jangela komuna dute, ikasgelak ere bai, baina lotarako herrian etxebizitza diferentetan banatzen dira.

Gainera, ikastaroak hilabetekoak dira. Ikastaro bat baino gehiago egin nahi dituenak ahalbide osoa du; baina hilabete bakoitzerako egin behar du matrikula. Hilabetekoak izate honek, erraztasun handia ematen du hilerio taldeak, norberaren mailaren arabera, birmoldatzeko.

Horretan gaude momentu honetan; luzaro baino lehen, Jaurilaritza egiteko den Barnetegi Publikoa zutik ikusitekotan.

2. METODOLOGIA

Puntu honi dagokionez, bereizketa nagusi bat egin beharra dago. Hain zuzen ere, biok berezikotik dira: maila akademikoko metodologia eta, izenen bat

emateko, maila integraleko metodologia. Eta, bestalde, euskara herrikoitzearen arazoa.

2.1. Maila akademikoa

Ez dakit inon ere erabiltzen ote den, hizkuntzaren irakaskuntzan, metodologia puru-pururik. Goiherriko Euskal Eskolan bederen, ia haseratik, metodologia aski eklektikoa darabilgu.

Metodologia baterako eta besterako joera diferenteak agertu izan dira Euskal Eskolaren historian zehar, noski.

a) Irakasleren batek *metodo zuzenarako joera* azaldu izan du. Baina, euskararen irakaskuntzarako joera nagusi bezala arrakastarik ez zuen izan. Halaz ere, ikasgelaz kanpoko joera bezala, punta-puntako garrantzia eman izan zaio, eta ematen zaio. Gaur, esaterako, jangelan elkarrekin aritzeari, tabernan, kalean euskaldun zaharrekin aritzeari, indar haundia ematen saiatzen gara Euskal Eskolan. Baina, ikasgelako joerarik nagusiena, esklusiboa izan gabe, beste bat da.

b) Joerarik nagusiena *metodo audiolingualerakoa* izan da Euskal Eskolan, eta da.

Baina, esan bezala, metodologia eklektikoa izan da ia haseratik. Joera hori hartzearen oinarrian, printzipio teoriko bat baino gehiago, printzipio intuitibo-pragmatiko bat egon zela esan behar. Izan ere, 1975ean jadanik hasia zen Euskal Eskola Udako euskal ikastaro trinakoak ematen. Eta lehen udako euskalduntze ikastaroa programatzean, berehala agertu zen egun osoan ariketa analitikoak eginez ihardutearen ezina. Hala hasi ginen eguneko ikastorduek teknika diferenteren arabera banatzen: ikastordu bat edo beste ariketa analitikoak egiteko, besteak globalak egiteko e.a. Eta, jakina, hala hasi ginen jokoak, ipuinak, telesaioak, argazki-hitzak e.a. tarteatzen.

Ez zen, noski, lan erraza izan irakasle guztien artean oreka eta consensus bat lortzea: ikastaro batean ariketa analitikoek denbora gehiegi eman zenielako; bes-

tean, teknika global bati gehiegi ematen zitzaioela. Oraindik gogoan dugu, «Gurpil Ikerketariak» izeneko teknika sortu zenean, nolako erabateko balioa eman zitzaion; hala, egunero-egunero, Gurpil Ikerketari bat egin behar zen, jendea guztiz asper erazteraino. Nola-halako oreka lortzea denbora asko kosta zaigula esan behar. Izan ere, Gurpil Ikerketariarekin bezala, Jalgi Hadi-rekin gertatu zen talderen batean edo bestean: irakasleren bat, metodo horren erabileraz egoki samar jabetu gabe, hasi berorrekin, eta laupabost astetara utzi beharrean gertatu. Eta horrelako gorabehera eta tirabira asko ikusi beharrean izan gara.

Gaur, Goiherriko Euskal Eskola guztirako Programazioa egina daukagu, eta, berorrekin batera, aipatutako metodologia eklektikoa ere aski finkatua. Horrelako lanbide-finkapenak berekin dakartzan arriskuak arrisku, frutu haundiak eman dituela esan genezake.

2.2. Maila integralekoa

Honekin zer esan nahi den? Edozein lanbidetan eta lantokitan bezala —eta areago ere bai— irakaskuntzan eta, batez ere, barnetegikoan, giza giro egokiak eta lasaiak eta atseginak asko esan nahi du. Hala, maila integraleko metodologia esatean, gizatasun jatorreko giro hori lortzeko eta egiteko ahalegina esan nahi da.

Horren alde, badira Goiherriko Euskal Eskolan hainbat eta hainbat faktore: irakasle goa aski eskarmentatua, ari-tua eta aski militantea; barnetegiko beste zerbitzariak (sukaldari, garbitzaile...) aski mentalizatuak; lan guztia herri barruan eta herri-giroan egitea; barnetegia era berezian moldatua izatea: logelak toki diferentetan, jangela beste toki batean, ikasgelak beste batean (neurri haundian, dena klaustrofobiari eta itomenari inolako biderik ez emateko moduan).

Kontra ere, ordea, badira zenbait faktore: ikaslerik gehienak langabetuak izanik, urduritasuna nabari ohi da, batez

ere udaberri inguruan; ikasgelak ez dira baldintza egokienekoak; bertan dabilen jende guztia ez da «aingerutxo» (tartean ganberro batzu, akaparatzaile batzu, axolagabe batzu ere agertzen dira), eta horrek, gusto-gustoko ez den hainbat arau ezarri beharra ekarri du.

Maila honetan sartuko genituzke beste zenbait puntu ere.

Ikastaro trinkoko ordu-banaketa ere (ikus 1.2.) asmo horretan oinarritua dago: atsedendialdiak ikasleek beren artean eta, ahal den neurrian, herriko jendearekin hitzegiten eman ditzaten; bestela, ordu-sail haundi bat libre utziz gero, ikasleak sakabanatu egingo liratenke, euskal giroa galduz noski.

Hari beretik doa beste hau ere. Batez ere goi-mailetan, baina behekoetan ere bai, euskal kulturaren sena ernarazteko eta sendotzeko geure ahalegintxoak egiten ditugu; batipat, ihardunaldi globaletan: Euskal Herriko geografiaz, historiaz, literaturaz... Hori bai: usain partidista duen zernahi alboratzen saiatu beharra dago nahi ta ez.

Asmo berarekin ematen dira urtean zehar laupabost bertsolari-ikastarotxo. Eta urtean egiten diren txangoak ere (ikus 2.3.) asmo horrekin egiten dira, alde batetik, eta ikasleen arteko lasaitasuna eta giro egokiagoa lortzeko, bestetik.

Azkenik, ikasle-talde bakoitzetik ahalik eta irakasle gehien pasatzeko printzipioa daukagu erabakia geure artean: Ikastaro trinkoetan, horrela, talde bakoitzetik 4 edo 5 irakasle pasatzen dira egunean, eta Ordukakoetan 2 irakasle. Uste dugu, ikastorduak dinamikoago gertatzen direla horrela, eta ikaslearen entzumena lantzeko ere egokiago gertatzen dela hori. Jakina, irakasleei koordinazio-lan haundia eskatzen die horrek.

2.3. Ikasgelako euskara eta kalekoa

Dudarik ez, ikasleak bere problemak izaten ditu kaleko euskara ulertzeko. Arazo horri aurpegi emateko, besteak beste, honako ahalegin eta entseiuak egin dira Euskal Eskolan:

a) Afarikoan, zenbait ikastarotan, herriko jendea eraman ohi da ikasleekin batera egon eta ari daitezten: txistek, pasadizo xebreak kontatzeko. Bertsolariak ere bai. Eta diapositibak botaz, beraietan agertzen dena kontatuz.

Gertatzen dena, talde-dinamikari eustea oso zaila gertatzen dela.

b) Ikasleak binaka bidali izan dira familia ezagunetara bazkalondoan ordu-beterako edo. Inoiz, baserri batetara arratsalde osorako ere bai. Honekin ere, ordea, laster nekatzen dira ikasleak.

c) Klasean, alokutiboa delakoaz ikastordu berezi bat jarri ohi da goi-mailan, siboki bederen alokutiboko forma arruntenak ezagut ditzaten.

d) Urtean hiruzpalau aldiz Txokoa mus-txapelketa antolatu ohi da euskaldun zahar/berrien arteko harremanak areagotzeko asmotan.

e) Urtean zehar, zenbait txango egin ohi da, ikasleak eta irakasleak joaten dirrelarik.

f) 1985eko uztailean esperimentu berri bat egin da: ikasle-talde bakoitzari arratsalde bat izendatu eta antolatu zaio, Goiherriko zonaren bat ezagutzeko aukera emanez, eta irakasle batekin eta herriko euskaldun zahar batekin joateko aukera emanez.

3. PROGRAMAZIOA

Jakina, hemen ere bereizketa bat egin beharra dago. Hain zuzen ere, euskalduntze, alfabetatze eta EGA titulurako prozesuaren programazioak bereizi behar dira.

3.1. Euskalduntze-prozesua

3.1.1. Ordu-kopurua

Abiapuntuan, euskalduntzeko behar den ordu-kopurua ezartzean, zera da problema: noiz dago bat euskaldundua? Erantzuna ez da erraza. Edozein kasutan, garbi dago hau: Euskal Herrian, gaur-gaurko egoeran, euskalduntze hori euskararen ezagutza eta erabiltze trebe-

tasun sakon samarrean jartzen ez bada, hau da, ikasle bat euskara erdi-ikasirik uzten bada, denbora asko baino lehen atzeraka hasiko dela; ikasitakoa ere ahaztu egingo du ikasleak zona erdaldunetara joatean. Ez dago berdinkatzerik, esaterako, Israelgo eta Euskal Herriko kasua: Israelen aski du batek ikastetxean maila apal bat harrapatzea; gaineratikoa kalean eta lantokian egingo du; ez du hebraiera hitzegin beste erremediorik; gure artean besterik da: euskaraz hitzegin ahal izateko, burua nekatu behar du.

Horiek horrela, ikasleak ikasitakoa mantendu dezan nahi bada, ikasgelan maila oso altua eta sakona harrapatu behar du.

Problema, ordea, hortxe dago: zein maila? Goiherriko Euskal Eskola honetan, 1.000 ikastordu inguru jotzen da egin beharreko zatia; intentsiboki egindako ikastorduez ari gara, eta razionalki egindakoez. Hilabeteko ikastaroa egin eta sei hilabetetan ezer egiten ez badu, hartutakoa erdigaldua duke berriro ekitean, eta horrek ez du balio. Udaldiko etenaldi luzeak hori dakar ikasle asko eta askoren kasuan.

Hona, bada. Euskalduntzeko mila ikastordu beharrezko jotzen direlarik, ikasle-taldeen banaketa egin behar da ezagutza-mailaren arabera. Ikasleen taldekatze horretarako, HABE-k 8 Urrats egin ditu, Urrats bakoitzari 100/125 ordu emanaz. Euskal Eskolan, berriz, hauxe gertatzen zaigu: ikastaroak hila-betekoak ditugula, normalean, eta ikasleak handik eta hemendik datozkigula, eta askotan talde-egokitze zehatzagoak egin behar izaten direla. Horrela, mailak eta sub-mailak egin behar izaten dira; hain zuzen ere, taldeak ahalik homogeneoenak egitearren. Segidako banaketa honen arabera egin ohi da hori:

1-C+1-B =1.	urratsa...	125 ordu
1-A+2-C =2.	urratsa...	125 ordu
2-B+2-C =3.	urratsa...	125 ordu
3-C+3-B =4.	urratsa...	125 ordu
3-A+4-C =5.	urratsa...	125 ordu
4-B =6.	urratsa...	125 ordu
4-A =7.	urratsa...	125 ordu
Hobekuntza-1 =8.	urratsa...	100 ordu
Hobekuntza-2		100 ordu

3.1.2. Helburu nagusia: hitzegin eraztea

Honetarako, hasiera-hasieratik, ariketa globalak eta analitikoak erabiltzen dira:

- egitura tipo bereziak lantzeko ariketak; ahoz, noski, nagusiki;
- ariketa analitikoak: jokoak, murala...;
- ariketa globalak: jokoak, muralak, argazkiak, elkarrizketa, ipuinak.

Haseran behintzat, ariketa gramatikalak beraien hurbileko gauzei loturik: gorputz-atalak e.a.

Haseratik ariketa globalekin hasteak garrantzi handia du:

- ikaslea, horrela, hizkuntza hitzegiteko dela konturatzen da; hizkuntza ez dela kolkoan gordetzeko;
- eta barnetegian bederen, laster hasten da ikasgelaz kanpo ere hitzegen;
- hitz batean, komunikazio-metodoari hurbilketa da.

3.1.3. Ikastorduen prozesua

Oso diferentea da, lehen mailetakoa eta goi-mailetakoa. Lehen mailetan, teknika diferenteak erabiltzen dira ikastordu bakoitzean: egitura gramatikalak landu, jokoak, abestiak e.a. Goi-mailetan, teknika bakar batez osatzen da ikastordu osoa: ordu batean egiturak, bestean ipuinak, bestean teleaioa, jokoak, e.a. Horren arrazoa, lehen mailetakoa erreturtoak oso txikiak izatea.

Laburtuz

- egitura gramatikalen inguruan moldatzen da ikastordua: egitura gramatikalak mailakatuz;

- teknika globalak ere, ahal den neurrian, mailakatu egiten dira (ez da, noski, gauza erraza);
- halere, teknika globaletan librea-go jokatzea ere interesgarritzat ematen da; hain zuzen ere, esakera herrikoiak e.a. sartzen joateko; esaterako, esaera zaharrak sistematikoki sartzen dira.

3.1.4. Motibazioa eta lorpena

Bistakoa da, bai bata eta bai bestea kontutan hartu beharrekoak direla. Eta, gainera, bata bestearen mende daudela: motibaziorik gabe lorpenik ez; eta lorpenik gabe motibaziorik ez. Baina, jakina, kronologikoki motibazioa da lehena.

a) *Motibazioa*

Problema, noski, ez da motibazioa bai ala ez. Inor ez da hasten euskara ikasten motibaziorik gabe. Problema, beste hau da: zein motibazio du gaur egungo euskal ikasleak?

Esan beharrik ez, azken urteotan asko aldatu dela motibazio-kontu hori. Gaur egungo motibazioa zein den oso garbi dago: portzentaia oso haundian, lanerako EGA tituluaren beharra. Aurreko urte haietan zein zen esatea ez litzaidake gauza hain ximplea; joandako urteak asko idealizatu ohi dira. Nire baitan hauxe diot: hain idealista omen ziren urte haietako idealismoak nolaz jo du lurra hain agudo eta hain bapatean; non dago hain idealista omen zen jende hura guztia?

Erantzuna garbi daukat: gutxiengo bat zen idealista. Bestela, honez gero euskarak gailur ingurua joa zukeen: bai gure politikoen munduan, bai administrazioan, bai egunkarietan, bai langileen munduan, bai...

Gaurko euskal ikaslea titulu bila dator gehienbat. Eta askotan euskal kulturaren munduan ezjakin huts dator, eta euskal arazoarekiko mentalizatu gabe. Euskararen ezagutzan sartu eta murgildu ahala, ordea, euskal kulturaz ere ja-

betuz doa, eta euskal arazoarekiko ere mentalizatuz.

Lan horretan, irakaslearen egitekoa, bistan dago, guztiz garrantzizko da. Irakasle militanteak, ikasle batzu militante egiteko probabilitatea du.

Esan daiteke, beraz, ikaslearen motibazioa berrituz doala euskararen munduan sartu ahala; neurri haundian bederen.

b) *Lorpenak*

Euskararen irakaskuntza/ikaskuntza, lorpenak, gaur egun, begibistakoak ditugu. Batipat, ikastaro trinkoetan. Ordukakoetan edo gau-eskolakoetan, egia esateko, problematikoagoa da arazoa. Behar bada, ordea, prozesu biak alderatzea erru metodologikoa dateke. Ez dira konparagarriak. Prozesu batean, jendea jo ta ke euskara ikasten ari da; beste egitekorik gabe. Bestean, egiteko nagusia beste bat du euskal ikasleak; euskara ikastea bigarren mailako egitekoa du, eta ez du beste biderik euskara ikasteko. Iritsiko ote eguna, zeinetan Euskal Herriko jende askok euskara ikasteko aukera izango bait du, bere lan-tegiko soldata galdu gabe? Nolabait, IRALE delako formulaz zenbait maisu-maistrari gertatzen zaionez jadanik?

Hona bada, Ikastaro trinkoetan ari-tuz, ez da salbuespena ikasle batek baino gehiagok urtebetean edo hamalau hilabetetan EGA lortzea. Lorpenak irakaskuntza-mailan aseguratutik daude; lorpen horiei eustea da problema; hain zuzen ere, ikasi-berri hori zona erdaldu-nera joatean.

3.2. Alfabetatzearen prozesua

3.2.1. Helburua

Alfabetatzearen helburua, euskaraz analfabetua dena, O.H.O.ko ikasle batek, euskarari dagokionez (ulertzen, hitzegiten, irakurtzen, idazten), harrapatu beharko lukeen mailara helaraztea da. Ez da nahastu behar, beraz, alfabetatze kontzeptuak He-go Amerika aldean

duen zentzua gure artean ematen zaionarekin. Euskalduna ez da analfabetoa (Hego Amerikako jende asko bezala); gaztelaniaz alfabetatua da; baina, euskaraz ez da alfabetatua: euskaraz ez du ikasi alfa-betarik, ez du ikasi «letrarik».

Helburuak dioenez, xedea oinarritzko alfabetakuntza da, eta ez alfabetakuntza teknikoa, honetaz ere hasi-masi batzu eta zenbait ahalegintxo eginak diren arren Euskal Eskolan.

3.2.2. Metologia

Jakina, euskaraz analfabeto huts-huts denik ez da; ikasgelara datozenetan bederen. Eta horrek metodologia zertxobait aldarazi egin digu; hobeto esan, hasiera batean jarraitzen genuena goragoxetik har erazten digu. Horiek horrela, osagari biokin hasten gara:

- ariketa globalak,
- ariketa analitikoak.

a) *Ariketa globalak*

Irakurgai bat hartu eta irakur erazi, ulertzen lagundu, labur erazi ahoz, labur erazi idatziz.

Ulterterazteak zera esan nahi du: edukiaz jabetzen lagundu, baina baita agertzen diren arazo gramatikalak argitu ere.

b) *Ariketa analitikoak*

Hautetan bereziki eta esplizitoki edo berariz lantzen dira arazo gramatikalak:

- aditza,
- deklinabidea,
- atzizkiak,
- hitz konposatuak,
- bestelako egiturak.

Alfabetatze mailako metodologiari buruz, esan behar da, beste maila globalago bateko esperientzia ere egina dugula. Hain zuzen ere, ikasgela berean euskaldun zaharrak eta berriak (goi-mailakoak) juntatzea: batzuek besteentzat aberasgarri gerta izan dira; zaharrak, hizkuntz errekurtsio aberatsagoak dituztelako, eta berriak, gramatika gehiago dakitelako. Esperientzia hori, ge-

hienetan, oso ondo atera da. Halere, euskaldun zaharrei klase bereziak eman beharra izan da tarteka; hain zuzen ere, ohizko ikastorduetan beren mailako egitura-lantzerik egiten ez delako.

Horiek horrela, egun osoko ikastaro trinkoetan, eta euskaldun zaharrek bakarrik eskuhartzen dutenean, eguneko ikastorduak honela banatzen ditugu:

- Ikastordu bat: Egiturak: aditza;
- Ikastordu bat: Mintzamina: testu bat hartu, irakur erazi, ulertzen lagundu eta laburterazi ahoz;
- Ikastordu bat: «Astez Aste» liburuskako jokamoldea: irakurgai bat hartu, eta bertako gramatika-arazoak (aditza, deklinabidea, atzizkiak, hitz konposatuak, sinonimo/antonimoak...) argitu;
- Bi ordu t'erdi (gutxienez): ariketa idatziz;
- Ikastordu bat: idazlana, eskutitza, diktaketa;
- Ikastordu bat: deklinabidea, atzizkiak, hitz konposatuak.

3.2.3. Programazioa eta epeak

Ez da erraza alfabetatze mailako programazioa zehaztea. Batipat, maila bereberekoko ikasle-taldea biltzea zaila delako.

Dena den, 1983-84 ikasturtearen hasieratik bildua du Euskal Eskolak programazio hori, «Alfabetatzen. Behin-behineko programaketa» izeneko txostentxoan, eta ia guztiz bat dator HABE-k «Helduen alfabetatzen programazioa» delakoan bildutakoarekin.

Ikasketa-epeari dagokionez, ikaslearen eskolatze mailari datzeko: eskolatu samarra denak, hilabeteko ikastaro trinkoan maila aski ona harrapatzen du; gehienetan, ordea, bi hilabete behar izaten dira, eta askotan hiru.

3.3. EGA titulurako prozesuaren mailaketa

3.3.1 Maila honetako prozesua eta problematika

Honetaz zer esan haundirik ez dago, Hezkuntza Sailak bideratua bait du.

Dena den, esan beharra dago, euskaldun berriekin, batipat, aski problematikoa gertatzen dela.

Batetik, EGA mailako ikastaroetara iritsi bitarteko ikasketa-prozesua, metodologia esan nahi da, guztiz edo ia guztiz desberdina izan ohi da. EGA mailako ikasketa, askotan, teknika batzu ikaste huts dela irudi ohi zaio ikasleari, eta zenbait irakasleri ere.

Bestetik, ikasleak presa haundia izan ohi du EGA mailako ikasketara pasatzeko.

Ikastaro-arduradunen lana, ikasleari euskalduntze mailan eustea izan ohi da, harik eta euskalduntze maila on bat harrrapatu arte. Esku ona behar du irakasleak honetan. Bestela, eta garaia baino lehen mailak pasa nahi dituen ikasle oro bezala, oinarririk gabeko ikasketaria bezala ibiliko da.

3.3.2. Ikastordu-banaketa

Horiek horrela, eta egun osoko ikastaro trinko batean, honela banatu ohi dira ikastorduak:

- Ikastordu bat: idazlana eta eskutitza;
- Ikastordu bat: burutze proba, sinonimoak, lexikoa (modismoak, esaerak... barne), ahozko laburpena;
- Ikastordu bat: egiturak (aditza, deklinabidea) eta gai bati buruz hitzegin eraztea;
- Ikastordu bat: testu idatziaren azterketa, aukera anitzeko galderak (irakurmena), esaldiak berriatzi;
- Ikastordu bat: elkarrizketa osa, hitzak aukeratu, hitzak asmatu, atzizkiak, hitz konposatuak, aukera anitzeko galderak (entzumena), diktaketa, mintzamena (telesaioa, berriak, mahaingurua...).

4. MATERIALA

Programazioa finkatuz gero, irakasleak moldatzen du ikasgelarako materiala.

Metodologiari buruz esandakoa aplikatu behar da hemen ere: irakasleak bere materiala handik eta hemendik hartzen du eklektiboki. Gehienbat, ordea, urtetan zehar Euskal Eskolan moldatutako materiala erabiltzen du.

Materialaren banaketa:

- a) Ikasgelarako/ikasgelaz kanporakoak.
- b) Teknika diferentetarakoak:
 - egitura gramatikalak lantzekoak
 - aditza,
 - deklinabidea,
 - hiztegia landu: sinonimoak e.a.
 - esaldi konposatuak.
 - mintzamena lantzekoak
 - telesaioa,
 - mahaingurua,
 - berriak,
 - gurpil ikerketariak e.a.,
 - beste jokoak.
 - entzumena lantzekoak
 - diapositibak: geografia;
 - fotokopiaz: testuak, egokitua edo bere hartan;
 - abesti-zintak: bertakoak, HABE-k argitaratuak...;
 - bertsolari-ikastaroak.
 - idatzizko ulermena
 - fotokopiak.
 - idazmena
 - gaiak eman, testua irakurri.

5. EBALUAZIOA

5.1. Sarrera-azterketa

Berez ebaluaketa ez bada ere, kontuan hartzekoa da sarrera-azterketa. Ikasle bat zein taldetan sartu jakiteko, ikastaro-haseran sarrera-azterketa egin ohi zaio. Egia esan, lan hau, ematen duen baino zailagoa da. Faktore asko egon ohi dira tartean: batek, zona euskaldunagokoa delako, belarria eginagoa du; beste batek, segun zein Euskaltegitan aritua den, egiturak landuago ditu; beste batek mintzamena; beste batek idazmena... Eta, jakina, norberaren iza-

kera ere hor dago: estrobertitua, introbertitua, e.a., e.a.

Eta esan beharrik ez, ikasgelarako guttiz garrantzizkoa dela maila bereko jendea biltzea.

Horiek horrela, sarrera-azterketan, ikaslea zein mailatakoa den baino garrantzizkoagoa gertatzen da zein ikasle-taldetan sartu. Horregatik, sarrera-azterketa hori egiteko lana, ahal dela, irakasle bat beraren esku utzi ohi da.

5.2. Ebaluazioa

Talde bakoitzean, normalean, ikastaro trinkoetan 4 edo 5 irakasle izan ohi dira; ordukakoetan bi irakasle.

Ebaluaketarik hoberena, dudarik gabe, ikastaroan zehar irakasleek egiten dutena da; taldeak hain txikiak izanik, eskolatzeko aski pertsonalizatua bait da: gehienbat, ebaluaketaren egitekoa irakaslea bere iritzia objetibatzeraz edo konkretatzeraz behartzea da.

5.2.1. Ebaluazio formalak: bi motatakoak

a) *Ikastaro bitartekoa*

Programan hainbat ikastorduro sartua daukagu ebaluazioa: ez da hain formalak; taldeko irakasle probetxurako da: egoki samar eginez gero, irakasleari pista onak eman diezazkioke:

- zertaraino jabetu diren ikasleak programaketako edukiez;
- zertan egiten dituzten hutsegiterik nagusienak e.a. (hau Gau-Eskolan batez ere; ariketa idatziak egiten ikasleak ez direlako hain leialak).

b) *Ikastaro-bukaerakoa*

Programan sartua hau ere: baina 100 ikastorduro egiten dena. Euskaltegi mailarako lagungarri.

5.2.2. Nola hezur-mamitu ikastaro-bukaerako ebaluazioa

HABEk emandako iritziren arabera egiten saiatzen gara; burutzeko orduan, alabaina, ez da paperean jartzea bezain erraza.

5.3. Ebaluazioaren subjektibotasuna

Edozeinek daki horren berri: ikaslearen momentuko egoerak edo eta irakaslearenak asko esan nahi du. Batez ere, goi-mailetan nabarmentzen da subjektibotasun hori. Hain zuzen ere, frogaraz «objektiboak» hain objektiboak ez direlako. Ondo asko daki horren berri, esaterako, EGA mailako idazlan bat zuzendu eta kalifikatu behar duenak. Horiek horrela, garrantzizkoena, ikastaro-bukaeran hurrengo ikastaroan taldeak ahalik homogeneoenak egitea izaten dugu.

6. IRAKASLEEN PRESTAKETA

Honetan, noski, bereizketa asko egin behar dira. Nagusiki, honako hau: batetik, irakasle berrien prestaketa dago; bestetik, irakasle arituak.

6.1. Irakasle berriak

Goiheriko Euskal Eskolan aski finkatua daukagu irakaslegoa. Udako ikastaroetako hainbestekoa ez bada ere, urtean zeharrekoa eskarmentu haundikoa da.

Dena den, urtean zehar ere etortzen da irakasletarako prestatu nahi duenik. Horiekin honela jokatu ohi da:

- a) Entzule eta ikusle bezala hilabete pare bat egin ohi dute, gelaz gela eta mailaz maila.
- b) Horren ondoren, sistematizaturik, zenbait ordutan eta teorikoki irakasle batek jakin beharreko zenbait gauza adierazten zaizkie:
 - glotodidaktikako puntu nagusienak;
 - programazioaren gorabeherak batipat;
 - talde-dinamikako zenbait ideia.

- c) Maila praktikoan eta teorikoan maila guztiez ikuspegi orokor bat dutenean, txandako irakaslearen gidaritzapean eta begi bistan, ikastordu bakoitzean ordu laurden batez zuzentzen dute ikasgela.
- d) Irakasleen bileretara joatea eskatzen zaie, ikasgelako problematikaz sakonkiago jabetuz joan daitezen.

- idazlanak nola zuzendu;
 esaldiak berriatzi delako teknikaz praktikak egin;
 itzulpen-praktikak egin;
 eskutitzak nola moldatu.

• • •

Bukatzeko, esan dezagun:

- a) Ordukako ikastaroak eta trinkoak guztiz desberdinak dira:

6.2. Irakasle arituak

a) Urtero, ikastaro laburren bat edo beste antolatzen da hauen prestaketarako:

- talde-dinamikaz;
- metodo diferenteren ikuspegi teorikoa berrituz;
- gramatika-arazoren bat argituz eta sakonduz;
- kultur punturen batetaz: antropologia, euskal historiako punturen batetaz e.a.;
- alfabetatze teknikoaz.

b) Urtean zehar: bi bilera nagusi egin ohi dira astean:

- ikastaroak antolatzeko;
- astero problemak batera aztertzeke;
- ebaluazio-fitxak eta beste betetzeke;
- gelditzen den denbora, gramatika-zailtasun diferentek dituztenak argitzen saiatzeko;
- eta, azkenean, urtero gai bereziren bat hartu ohi da astero-astero lantzeko:

Trinkoetan

- prozesu azeleratua,
- lan-giro haundikoa,
- klasez kanpo euskal giroa ikasleen artean,
- frutuak argi eta garbi ikusten dira, eta laster,
- jendea berehala hizketan jarri; arrisku bat: akats askorekin gelditzea.

Ordukakoetan

- prozesu nagiagoa,
 - lan-giro eskasekoa,
 - klasez kanpoko erdal giroa,
 - frutuak oso urrutira,
 - jendea ezin jarri hizketan.
- b) EGA azterketako esperientzia:
- mintzamenen jende askok gainditzen du;
 - idatzikoan ez hainbestek.
- c) Ikusteko dagoena, honako hauek da: zer egingo ote dute gure ikasleek ikasi berria eta aski menperatua duten euskararekin beren eskualdetara joatean?